

## **Besta eder huntarat, goazen oro betan Sar bedi bat bedera alegrantzieta!**

Allons dans la joie vers le Seigneur

- 1 - Haurño hunen gatik gaur gaiten alegera :  
Lehen aldiz baita jin Jaunaren etxera.  
*Réjouissons-nous pour cet enfant accueilli par le Christ*
- 2 - Hurbil gaiten, anaiak, Bataio-harrira  
Jainkoaren semeak hemen sortzen dira.  
*Approchons de la pierre de son Baptême*
- 3 - Hunen Herri berria gare orai denak.  
Entzun zazu, Jauna, zuk, esker beroenak.  
*Il est maintenant des nôtres, Merci Seigneur*
- 4 - Horra kristau gazte bat Jaunaz xertatua :  
Bihar izan gaiten gu hunen sustengua.  
*Voici un petit enfant „greffé“ au Christ*

Jésus, Lumière du monde, tu es la Vérité, tu es la Vie

## **Jesus, munduko Argia !**

## **Jesus, zinezko Egia !**

## **Jesus, betiko Bizia !**

1 - Gure bihotz barneri  
Eman zure Argia,  
Dugun, Zu aintzindari,  
Argi mundu guzia.

2 - Jesus Jainko bakarra,  
Zuri gure Herria !  
Beude urrun gezurra,  
Herra eta lohia !

3 - Etxetan, herriean  
Izan denen Nausia,  
Oraitik Zure baitan  
Gaiten denak loria !

Pour les copier/coller  
sur vos feuilles de  
baptême, tous ces  
chants sont  
disponibles  
sur le site de la  
paroisse,  
onglet DOCUMENT,  
fichier Baptême textes,  
ou Bataioa testoak en  
basque

## **Kristorekin guk ber fedea,bataio bera, bera Jainko, Jaunen Jauna, guzien Aita.**

*Un seul Seigneur, une seule foi, un seul Dieu !*

1 - Gorputz batean, menbroz ainitz, bihotzez bat  
Izpiritua bat eman daku Jainkoak :  
Hortakotz gora diogu :

2 - Erakusten du hau dela gure bidea  
Egin dezagun batasun eta bakea.  
Hortakotz gora diogu :

## **Denek denetan gorets Jainko Denetan gorets Jainko**

1 - Bai bihotzean bai gorputzean gorets-azue  
Jainko

Bai solasetan, bai urratsetan, "  
Jainko ganik baita mundua, Jainko ganat baitoa

2 - Bai egun argiz bai gau betean, Gorets-azue  
Jainko

Lanean ariz eta jostetan, "  
Hori da hori bakotxarentzat zorionaren gakoa .

## **Zato Izpiritua, kreatzaile Saindua, Bero zatzu bihotzak, zu gabe dire hotzak.**

*Viens, Esprit Créateur, redonner vie à nos coeurs*

- 1 - Bete zatzu graziez, Zerutik egorriez,  
Gure adimenduak Zeronek moldatuak.
- 2 - Kontsolatzale ona izendatzen zarena,  
Dohain baliosena Jaun zerukoarena.
- 3 - Iturburu bizia, amodio garbia,  
Karitate kartsua, artatzale saindua.
- 4 - Fededunen bihotzak berotu tutzu hotzak  
eta bete dohainez Izpirituarenez.
- 5 - Zato Izpiritua, Izpiritu Saindua,  
Hola laster mundua dadien berritua.

## **FEDEDUNEN OTOITZA**

1. Jauna, orroit zaite, zoin gaituzun maite.
2. Erakuts guri, Jauna, zure bihotz ona.
3. Gure otoitzer beha, Jauna.
4. Onhar Jauna egungo otoitza (bis).
5. Artzain ona otoi beha , hau da zure artaldea

**Gure Aita, zeruetan zirena,**  
Saindu izan bedi zure izena,  
Etor bedi zure erreinua.  
Egin bedi zure nahia,  
Zeruan bezala,  
lurrean ere.  
Emaguzu gaur  
Egun huntako ogia.  
Barkatu gure zorrak,  
Guk ere gure zorduner  
Barkatzen diegunaz geroz.  
Ez gaitzazula utz tentaldian erortzen,  
Bainan atera gaitzazu gaitzetik.

**Agur Maria,** graziaz betea, Jauna da zurekin,  
benedikatua zare emazte guzien artean,  
eta benedikatua da zure sableko fruitua Jesus.  
Maria saindua,Jainkoaren Ama,  
egizu otoitz gu bekatorosentzat  
orai eta gure heriotzeko orenean. AMEN.  
Je vous salue, Marie...

## ***Jainkoaren Ama, Ama guziz ona, Zaitzagun maita, beti, beti. ( bis )***

*Mère de Dieu, nous voulons t'aimer toujours*

1 - Gure goesmenak onets ditzazu  
Gaitz guzietarik, beira gaitzazu :  
Jesusek beti zu entzuten baitzaitu  
Beti, beti.

*Accepte nos louanges, veille sur nous*  
2 - Zoin garbi zaren errepikatzen,  
Lur guzia nehoiz ez da baratzen.  
Gu ganik eskerrak ditutzu segurak,  
Beti, beti.